

ERASMUS+ bekaren praktikak

2014/07/07

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Heziketa Zikloetako sei ikaslek Erasmus programari esker Europako hainbat herrialdetan hiru hilabeteko egonaldia egin dituzte, bertako enpresetan praktikak eginez.

Italia, Erresuma Batua, Herbehereak eta Poloniako enpresetan egon dira 2013-2014 ikasturteko ikasle hauek eta urte eta erdian ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dute.

Egonaldi honekin beste herrialde bat, beste kultura bat, beste hizkuntza bat ezagutzeko aukera izan dute. Guzti honekin eta ikasleek landutako gaitasun osagarriari esker, lan profila hobetu egiten dute, eta enpresa munduan sartzeko aukerak ugaitu egiten zaizkie.

Esperientzia ahaztezina izan dela kontatu dute bueltan eta bat baino gehiago bueltatzeko gogoarekin gelditu da.



Heziketa Zikloetako ikasleak